



Jaio da kafEKOak, elkarte gastronomikoetako kafe-hondakinak lehengai bilakatzen dituen kanpaina

· kafEKOak-ek, ekonomia zirkularreko ekimen aintzindariak, bere ibilbideari ekin dio Donostian, kafearen kontsumoarekin loturiko hondakinak gaika jaso eta bigarren bizitza bat emateko helburuarekin.

· Ekimenean parte hartzen dute Donostiako Udalak, Cristina Enea Fundazioak, KAFEAEco enpresak eta Rural Kutxak. Kanpaina hiriko elkarte gastronomikoetan garatuko da.

Donostian 2022ko maiatzaren 11n.- Herritarren parte-hartzea izango da Donostiako Udalaren **kafEKOak** ekimenaren gakoetako bat. Kanpainaren helburua ekonomia zirkularreko dinamika bat sortzea da, eta, bertan, kafearen kontsumoarekin lotutako hondakin guztiak (kafe-marroa, kapsulak, poltsak, zakuak, etab.) birziklatze-planta batera bideratuko dira, hondakin-ontzietara beharrean. Eta, gainera, gizartearen parte-hartzearen eta ingurumen-sentsibilizazioaren bidez garatu nahi da ekimena.

Hori lortzeko, hiriko gastronomia-elkarteak izango ditu aliatu. “Ekimen honek herritarren eguneroko zereginetan hondakinak murrizteko beharra azpimarratzen du. Denak ez du zabor-ontzian amaitu behar, askotan hainbat hondakin birziklatzeko eta balioa emateko aukera izaten baitugu, hala nola kafea eta merkaturatzeko materialak, eta tratamendu egokiarekin bigarren bizitza bat izan baitezakete, beste erabilgarritasun bat”, Marisol Garmendia Donostiako Udaleko Ekologia zinegotziak adierazi duenez.

Bildutako hondakin guztiak KAFEAEco enpresak Adunan (Gipuzkoa) dituen instalazioetan tratatuko dira. Han, bai kafe-hondakin organikoak, bai kapsuletako plastikoa eta aluminioa, birziklatutako produktu eta elementu berriak sortzeko tratatuko dira, hala nola birziklatzeko ontziak, mahaiak, hiri-altzariak eta perretxikoak autolaboratzeko kitak. “Bildutako hondakinei egingo zaien tratamenduari esker, hondakin izatetik lehengai izatera pasatuko dira, eta horiekin hainbat elementu egingo ditugu, hala nola loreontziak, haziak eta perretxikoak hazteko kitak, etxeko poteak, erretiluak edo edukiontziak”, azaldu du Iñaki Muro KAFEAEco enpresako zuzendari komertzialak, eta gaineratu du “gure aisialdiak ez duela edukiontzi batean amaitu behar, hondakin gisa, baizik eta balioa eman eta bigarren bizitza eta erabilera bat eman behar baitiogu, gure gizartearen zaintza gure ingurunearen zaintza delako”.

KafEKOak ekonomia zirkularreko dinamikak sustatzeko helburuarekin jaio da, beraz, eta hori, hain zuzen ere, kanpainarekin bat egiten duten elkarte gastronomikoen erabiltzaileak kontzientziatzeko jarduera didaktikoen bidez gauzatuko da, Cristina Enea Fundazioak diseinatu eta kontzeptualizatutakoak.

“Kafearekin lotutako hondakinak botatzeko eta doan biltzeko ontziez gain, elkarteetan kafetik eratorritako hondakinak bereizteko, birziklatzeko eta balioztatzeko faseak azaltzen dituzten kartelak jarriko dira”, Marisol Garmendiak adierazi duenez. Era berean,

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:





elkartearen beraren sare sozialak erabiliko dira ekonomia zirkularraren prozesu osoa eta azken emaitza azaltzen duen azalpen-bideo bat zabaltzeko.

Dagoeneko lehen harreman bat egin da Donostiako elkarteekin. Hala ere, parte hartu nahi duten elkarte guztiek doan egin ahal izango dute **943453526** telefonora deituz edo **cristinaenea@donostia.eus**-era idatziz.

Gainera, kanpainak bisita gidatuak aurreikusten ditu KAFEAEcoko birziklatze-plantara bertara. Han, parte hartzen duten pertsonen kafearen ondoriozko hondakinen prozesu osoa eta prozesu horien emaitzak ikusi ahal izango dituzte. Ibilbidearen amaieran, sortu diren zalantzak argitzeko gune bat egongo da, eta kafe bat eskainiko da, noski, laborantza ekologiko eta bidezko merkataritzakoa.

Kanpaina 2022an garatuko da lehenengo fasean, eta Rural Kutxaren laguntza irmoa izango du, gizarte-sentsibilizazioko eta -kontzientziazioa jardueren garapena eta ekonomia zirkularraren sustapena bultzatzearen aldeko apustua egiten duen finantza-erakundea baita. Iñigo Calafell Rural Kutxako Erakundeetako arduraduna da, Gipuzkoan, eta adierazi duenez, *“gure gizarte-ekintzaren Ingurumen eta Tokiko Garapenaren ardatzean kokatzen den proiektu honen bidez, ekonomia zirkularrari laguntzeko aukeraz kontzientziatu nahi ditugu herritarrak, eguneroko ekintza sinpleen bidez. Hori guztia, elkarte gastronomikoak protagonista izanik, gure hiriaren eragile sozial garrantzitsua eta egituratzailea direla erakusten baitute”*.

Mandasko Dukearen pasealekua, 66 20012 Donostia / San Sebastián | Tel: + 34 943 453 526 | cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

Patronoak | Patronos:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente:

